

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2025eko abenduak 5 • 1377 zenbakia

EMAIIOZU

BERBIA

EUSKERIARI!!

2MÓ 109€

betaurreko graduatuak

batzuk eguzkitakoak izan daitezke

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



MULTIÓPTICAS

943 20 05 22
Bidebarrieta, 2. EIBAR



hitzordua eskatu

www.multiópticas.com



vinos Solera Eibarresa

1939

Estrella Galicia

Gabonetako Topa onena, gurekin

Gure ardo, likore eta garagardoekin,
zure ospakizunak paregabeak
izango dira.

Gerturatu zaitez gure biltegira
gabonetako **promozioak**
ezagutzera eta **Oparia Eskuratu**

Egin gutxieneko eskaera eta
Opari bat izango duzu zain.



Zaporea Oparitu. Gabon Zoriontsuak!
1939tik, zure konfiantzako edari banatzailea

Ibur Erreka Poligonoa z/g - Eibar - Tel.943201353-943206614
Mobila: 606984166

Astelehenetik Ostiralera: 8:00etatik - 18:00etara
www.vinosconsolera.com - info@vinosconsolera.com

Jarraitu gaitzazu!

BIDEOAK YouTubean ikusgai



Jarraitu aktualitatea gure webgunean eta sare sozialetan



Eibarko Gure Esku Dago plataforma berpizte unean dago, eta komunitatea zabaltzea eta erabakitze eskubidearen inguruko kontzientzia sendotzea dute helburu. Beñat Laskurainek eta Unai Corobak kontatu dizkigute herriko plataformaren nondik norakoak. Bideo hau eta beste asko ...eta kitto!-ren YouTubeko kanalean ikus daitezke.

www.etakitto.eus

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi

Belar, Ander Fernandez, Silbia

Hernandez, Irune Jaio eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Irune Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Irune Jaio

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



Eskutitzak



Eskerrik asko, ezezagun ondratua

Joan den azaroaren 30ean, lagunekin sananadresak ospatzen ari nintzela, azokaren postu batean odolosteei begira nintzela bat-batean konturatu nintzen poltsikoan karteratxoa falta zitzaidala. Kriston beldurra sartu zitzaidan, karteratxo horretan nire dokumentazio pertsonal guztia neukalako, diruaz gain. Lagunekin elkartu nintzen eta urduri, nerbioak jota, zer egin nezakeen hasi ginen pentsatzen: odolosteen postura joan galdezka edo bertara eta bertatik egin nuen ibilbidea errepasatu... Azkenean, nahiz eta inongo konfidantzarik gabe, esan zidaten beste gauza bat egin nuen: Udatzaingoak udaletxe ostean duen bulegora jo nuen, galdezka. Han zegoen nire diru-zorroa! Gainera, nuen guztia bertan zegoen, ia ukitu gabe! Hura poza!

Pozarren atera nintzen handik, Udaltzaingoan ziren polizia eskerrak eman ondoren. Baina erru pixka bat sentitu nuen, ez bainien galdetu nor izan zen nire karteratxoa han laga zuena. Damu horrekin nator orain, laga zuenari esker beroenak ematera. Gutuntxo hau irakurtzen badu: mila, mila esker!!! Eibartarrak ondratuak dira, bai horixe!!!

Jose Mari B.

Zorionak, Eibar!

Eibarko Mendiak BIZIRIK plataforma herrikoiak sinatutako 1.000 alegazio inguru jaso ditugu asteburuan, "PE BASALGO" proiektu eolikoaren aurka. Zifra horrek ez du kopuru bat adierazten soilik -herriarren konpromisoa, batasuna eta naturaren aldeko maitasuna islatzen ditu-. Zuen ahotsak ozen entzun dira. Zuen sinadurak ez dira paper hutsak izan, baizik eta Eibarko mendien aldeko oihu kolektibo bat, gure paisaia, biodibertsitatea eta ondare naturala defendatzeko borondate irmoa. Ez gaude energia berritzagarrien aurka, baina edozerk ez du balio. Energia garbiaren koherentziaren alde gaude. Zorionak bihotz-bihotzez orainñ arte parte hartu duzuen guztioi: alegazio bat sinatu duzuenoi, informazioa zabaldu duzuenoi, bileretan parte hartu duzuenoi, eta batez ere, etorkizun jasagarri baten aldeko borrokan tinko zaudetenoi.

55 urte Roberto Perez Jauregi eibartarra erail zutela

Datorren astelehenean, abenduak 8, 55 urte beteko dira Roberto erail zutela. 1970. urtea zen, eta Burgosen Erregimen Frankista ETako zenbait kide epaitzen ari zen. Erregimenak atxilotuentzat heriotza-zigorra eskatzen zuen, eta epaiketa berak zein heriotza-zigorra eskaera horrek nazioartean, Euskal Herrian eta baita Eibarren ere auzipetuekiko elkartasun mugimenduak sortarazi zituzten. Gogora ekarri behar dugu hiru auzipetu eibartarrak zirela: Mario Onaindia, Enrike Gesalaga eta Jon Etxabe.

1970eko abenduaren 3an eta 4an greba egunak izan ziren. Eibarren manifestazio handiak egin ziren. Abenduaren 4koan polizia infiltratu batek bertatik bertara Roberto Perez Jauregi tirokatu zuen. Handik 4 egunetara hil zen.

Roberto erail zuen polizia Valladolidera lekualdatu eta saritu zuten, goragoko postu bat eman baizioten. 55 urte hauetan ez da ikerketarik izan. Kasuak espainiar estatuko sekretu ofizialen legearen babespean jarraitzen du.

55. urteurren honetan Eibarko Sortutik Roberto oroitu nahi dugu, Roberto pertsona eta Roberto militante komunista. Roberto gure memoria kolektiboaren parte eta erreferentia da. Erreferentia gizarte hobe baten alde borrokan ari garenontzat

Eibarko Sortu

Datorren astean ez da alerik izango

Datorren asteko zubia dela eta, ez duzue alerik izango zuen buzoietan. Hurrengo alea, beraz, abenduaren 19an jasoko duzue.

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PITXIRKERIXA → Zekenkeria. Gaztelera 'mezquindad'. "Pitxirkerixia izan zan geure aldetik lora pillu eder bategaz ez agertzia".

PITXIRRI → Zekena, zikoitza, ugerra. "Kanpuan eskuzabala, etxian oso pitxirrixa".

1949

Francisco Franco
diktadorea
Eibarren

Indalecio Ojangurenen
argazkian ikusten duzuen hori
Francisco Franco da, Eibarren,
Carlos Larrañaga auzoko (gaur
egungo J.A. Mogel) etxeak
inauguratzeraz etorri zenean.



Farmaziak

BARIXAKUA 5
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7))
ZAPATUA 6
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7))
DOMEKA 7
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 8
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
MARTITZENA 9
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
EGUAZTENA 10
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 11
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
BARIXAKUA 12
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **M^o Paz Lasarte Aizpuri.** 97 urte. 2025-XI-26.
- **Marcelino Gabilondo Alberdi ("Martxel").** 84 urte. 2025-XI-29.
- **Paco Arakistain Agirregabiria.** 90 urte. 2025-XI-29.
- **Jesus M^o Ugarteburu Unzetabarrenetxea ("Mandi").** 88 urte. 2025-XI-29.
- **Antonio Martinez-Alcocer Garcia-Abad.** 81 urte. 2025-XI-30.
- **Ignacio Arregi Berrioizabal ("Iñaki").** 91 urte. 2025-XII-2.
- **Pilar Gutierrez Montoya.** 88 urte. 2025-XII-2.



PSE-PNV gobernu taldearen aldetik “seriotasun eta erantzukizun politiko falta” dagoela salatu du EH Bilduk

S.H. Eibarko EH Bilduk salatu duenez, “datorren urteko aurrekontuei dagokienez, negozioazio erreal bat baino gehiago, antzerki hutsa, eszenifikazio bat ikusten dugu”. Diotenez, 2024an PSEk eta PNVk legealdirako akordioa lortu zutenetik, negozioazioetatik kanpora laga dituzte. Gainera, udal-gobernu taldearen proposamenak aztertzeko gehienez hamar lanegun eman dizkiete, “epe guztiz eskasa 62 milioi euroko aurrekontua eibartarrei azaldu eta haiekin kontrastatzeko”. Azaldu dutenez, aurrekontu proposamena azaroaren 21eko arratsalde-gauean helarazi zieten, eta zuzenketetarako epea abenduaren 5ean, 09:00etan amaitzen da: “Beraz, ez ditugu hamar lanegun, bederatzi baizik. PSEk eta PNVk adostutako proposamena azaltzeko bilera eskatu genuen eta azaroaren 26an bildu ginen; sail bakoitzerako 15 minutu eman zizkiguten. Jasotako dokumentazioak akats ugari eta zehaztasun faltak ditu, eta horri proposamena aztertzeko denborarik ez dagoela gehitzen badiogu, ezinezkoa da ezer egitea”.

Dokumentazioa zuzenduta bidaltzea eta hamar eguneko epea berrabiaraztea eskatu arren, ez dute lortu epea luzatzea: “Dokumentazio oker eta osatugabeak dituzten miloika euroko partidak ordu laurdeneko bileretan ‘konpondu’ daitezkeenik ezin da pentsatu”.

Bizi-kalitatea hobetzea helburu

Azpitarratu dutenez, “gure proposamenak herritarren bizi-kalitatea hobetzeko pentsatuta daude”. Berriz eskatuko dituztenen artean hauek daude: etxebizitza-parke publikoa handitzea; zaintza-sistema hobetzeko inbertsioa; dagoen arazoa konpontzeko haurreskola berri bat; hezkuntza teknikari bat kontratatzea, segregazioa lantzea; eta kultura arloan sarrera erosketetan Udalaren ordainketa-pasabidea erabiltzea, Kutxabanki komisioak ordaintzeari utziz. Parke estaliak, lehen sektorea, merkataritza eta industria indartzeko emendakinak ere aurkeztuko dituzte. Amaitzeko, “Udaleko gobernu bipartitoari negozioaziora serio har dezan eta Udaleko bigarren indarra ere aintzat hartzeko” eskatu dute.

Jesus Mari Ugarteburu zinegotzi eta baserritarren alkate ohia hil da

S.H. San Andres bezperan, azaroaren 29an hil zen Jesus Mari Ugarteburu Unzetabarrenetxea ‘Mandi’, 88 urterekin. Eibarko EAJ-PNV-kidea, Eibarko Uri Buru Batzarreko lehendakaria ere izan zen, eta Eibarko alderdi jeltzalearen alkategaia, 1987ko Udal Hauteskundeetan. Eibarko Udaleko hautetsi izendatua izan zen, EAJren izenean, 1987ko ekainaren 10eko hauteskundeetan. Berriz hautatu zuten zinegotzi kargurako 1991ko maiatzaren 26ko hauteskundeetan. Arrateko bizilagun eta baserritarren alkate ere izan zen, eta 2001ean Arrateko Jaietan omendu zuten, bi urte lehenago hil zen Jose Luis Urzuriaga Sumendixa-rekin batera, Arrateko Jai Batzordean egindako lana eskertzeko. Goian bego.



UEU-k antolatutako mahai-ingurua online dago

S.H. Belaunaldi berri euskaldunak eta teknologia mahai-ingurua egin zen azaroaren 18an Markeskuan, eta orain bideoan ikusteko aukera dago, antolatzaileek jakinarazi dutenez. Udaiko Euskal Unibertsitatearen YouTube kanalean sartu eta bertan ikus daiteke, osorik.



“Oparitu Eibar” txartela opariekin dator aurtengo Gabonetan

S.H. Eibar Merkataritza Gune Irekia (EMGI) elkarteak, Eibarko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, tokiko merkataritzan kontsumoa sustatzeko proposamen berria abiatuko du abenduaren 9an: *Oparitu Eibar* opari-txartelak. *Oparitu Eibar* VISA txartela da, www.erosieibarren.eus plataformaren bidez eskuratzen da, eta kanpainara atxikitako Eibarko establezimenduetan erosketak egiteko balio du. Abenduaren 9tik 21era bitartean “Oparitu Eibar” txartela

erosten dutenek, erosketetan gastatutako 50 euro bakoitzeko, abenduaren 22an egingo duten zozketarako parte-hartze bat jasoko dute. Zozketa bidez 250 euroko txartel bat eta 100 euroko 10 txartel oparituko dituzte. Kanpaina honen bidez Eibarko establezimenduetan erosketak egitera animatu nahi dute jendea eta, diotenez “bezero berriak erakartzen dira eta, era berean, Eibarko merkataritzari bizitza eta nortasuna ematen dioten saltokiak babesten dira”.

Gabonetarako menuak prestatzen ikasteko kurtsoa antolatu dute

S.H. Abenduaren 13rako sukaldaritza tailerra antolatu du Basaguneak, Gabonetako menuetarako proposamen gastronomikoak lantzeko. Portaleko sukaldean izango da, 10:00etatik 13:00era. Parte-hartzaileek elkarrekin prestatuko dituzte platerak, Basaguneko bazkide batek bideratuta. Produktu gehienak ekologikoak, hurbilekoak eta sasoikoak izango dira. Tailerraren amaieran, prestatutako platerak dastatuko dira. Prezioa 5 eurokoa da inskripzio bakoitzeko eta izen-ematea zabalik dago.



HIREKIN HAMAİKA IKUSTEKO

Euskaraz bizitzeko, kultura partekatze, hamaika istorio, bizipen eta momentu elkarrekin bizitzeko.

Gure ondarea bizirik mantentzeko artea eta sormena bultzatzeko momentua da.

Egin zure ekarpena

hamaika



Basalgori buruzko alegazioen kanpaina indartsu hasi da

S.H. Asteburuan ipini zuten mar-txan Basalgo parke eolikoari buruzko alegazioekin bat egiteko kanpaina, eta emaitza “ezin positiboagoa” dela adierazi dute Eibarko Mendiak Bizirik herri-plataformatik: “Lehen bi egunetan, mila atxikimendu baino gehiago jaso dira”. Herri alegazioen kanpaina datorren abenduaren 22ra arte garatuko da, hori baita dokumentuak aurkezteko azken eguna. Plataformak informazio-gune gehiago jarriko ditu datozen bi aste hauetan: “Bertan, proiektuaren xehetasunak eta Eibarko Mendiak Bizirik egiten ari den lana ezagutu ahal izango dira, baita alegazioak sinatu ere, hala nahi izanez gero. Mahaia Untzagan jarriko da berriro, baina Amaña, Urkizu eta Errebalera ere eramango da”.

Gainera, kanpainarekin bat egin nahi dutenek, honako establezimendu hauetan jaso dezakete sinatu beharreko orria, eta ondoren bertan entregatu: Amesti taberna,

Basagunea, CDR Bizikletak, Eibarko Klub Deportiboa, Eskulan, Guridi eta Nahaste kafetegia. Eta Elgoibarko Marrubi dendan ere (Antonio Arrillaga, 3) dago eskuragarri. Adierazi dutenez, ekimena beste herri batzuetako herritarrei zabalik dago-eta. Izan ere, dagoeneko atxikimenduak jasotzen ari dira Debabarreneko eta Durangaldeko hainbat udalerritatik, kaltetutako herrietakoez gain. Dokumentua eskuragarri dago plataformaren hedapen-kanalean –Eibarren banatu diren karteletan txertatutako QR kodearen bidez sar daiteke–.

Eibarko Mendiak Bizirik-ek hiritarren eta ekimenari laguntzen dioten establezimenduen partehartzea eskertu nahi du, herri alegazioen garrantzia gogoratzeaz gain: “Bizkaiko Jata eta Sollube mendietan garatu nahi zuten parke eolikoaren makroproiektuari uko egin diote, mugimendu herritarrek 3.300 alegazio aurkeztu eta gero egiteari”.



762 zenbakiak irabazi du Urvat waterpolo taldearen San Andres eguneko otarra

S.H. Urvat waterpolo elkarteak zozketatu duen San Andres eguneko otarra 762 zenbakiari egokitu zaio. Egunean bertan egin zuten zozketa, asteburuan Untzagan mar-txan egon den txosnan. Saridunak abenduaren 22ra arteko epea dauka saria jasotzeko (kontakturako hel-bidea: eibarko.urvat.ike@gmail.com). Bestela, ordezkoko zenbakia (2135 eta 831) duenarentzat izango da saria.



Greba feministen inguruko liburuaren aurkezpena

S.H. Abenduaren 11n, eguna aurkeztuko du *Euskal Herriko Greba Feministak. Diskurtsoaren analisi feminista materialistatik* liburua Uma Ulazia Zubeldiak, 18:00etan Andretxean. Euskal Herriko 2019ko martxoaren 8ko eta 2023ko azaroaren 30eko greba feministak aztertu ditu lan honetan, eta bi greben gakoak azaltzen ditu. Sarrera libre da.



SD Eibar-ek elikagaien truke sarrerak lortzeko kanpaina ipini du martxan

S.H. Aurten ere SD Eibar-ek, Elikagaien Bankuarekin elkarlanean, elikagaiak biltzeko kanpaina jarri du martxan. Horrela, domekan Cultural y Deportiva Leonesa taldearen aurka jokatu duen partidarako sarrera bat emango die elikagaiak ematen dituztenei. Bilketa Ipuruako Orsaixan gunean egingo da. Kanpainan parte hartzeko, Orsaixanera jo beharko da domeka baino lehen edo sarrerak agortu arte, ordutegi honetan: astelehen, martitzen, eguazten, eguen eta barixakuetan,

09:30etik 13:30era eta 15:30etik 19:00etara, Partida egunean ere, 16:30etik 18:30era bitartean entregatu ahal izango dira elikagaiak. Elikagaien Bankuko arduradunek honako elikagaiak ematea gomen datzen dute: zerealak, lekaleak, esnea, olioak, zukuak, fruitu lehorrak, aurrekozinatuak, kontserbak edo haurrentzako elikagaiak, hala nola esne hautsa edo pototxoak. Eman dako elikagaiekin, pertsona bakoitzak gehienez bi gonbidapen eskuratu ahal izango ditu.

Zine-forum feministaren hurrengo saioa abenduaren 12an

S.H. Pagatxa emakume elkartearen eskutik, zine-forum feminista saioa egingo da abenduaren 12an, barixakua, 18:30ean, Portaleko areto nagusian: Sam Mendes-en *Revolutionary Road* filma emango dute. 50eko hamarkadan girotuta dagoen pelikula honetan Frank (Leonardo DiCaprio) eta April (Kate Winslet) dira protagonista nagusiak. Festa batean elkar ezagutu eta maitemindu egiten dira. Aprilek aktore izan nahi du. Bidaia tzea amesten du errutinatik ihes egiteko eta emozio berriak esperimintatzeko. Sarrera doan eta libre da.



FUNEUSKADI
Funeraria Mugica

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funeraria

TANATORIO EIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Otaola hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermusko bulegoa: Marqués de Valdespina, 15

Eibar • Elgoibar • Ermua • Bilbo • Barakaldo • Leioa • Getxo • Sestao
Portugalete • Santurtzi • Basauri • Galdakao

Ildefonso Pancorbo Rodriguez (Alfonso)

1. URTEURRENA
2024/12/02

Beti egongo zara gurekin.
Maite zaitugu.

— ETXEKOAK —

European ospatu dugu aurten San Andres eguna





ARGAZKIAK: EIBARKO UDALA / SILBIA HERNANDEZ

ARGAZKI-BILDUMA
IKUSTEKO:



BIDEOA IKUSTEKO:



“Euskal Herria hemen dagoela erakutsi nahi dugu”

BEÑAT LASKURAIN eta UNAI CORDOBA • Eibarko Gure Esku Dago plataformako kideak



Hamabi urte bete ditu Gure Esku Dago plataformak; Eibarren berpizte unean dago, eta komunitatea zabaltzea eta erabakitzeko eskubidearen inguruko kontzientzia sendotzea dute helburu.

Elkarrizketa IRATI ALVAREZ

Gure Esku Dago plataformak hamabi urte bete ditu aurren, eta ibilbide luze horretan ehunka dinamika, mobilizazio eta ekimen jarri ditu martxan, herri-borondatez eta oinarri demokratikoz. Eibarren ere, talde aktiboa izan da hasieratik, eta orain berpizte garaia bizi dutela diote bertako kideek. Beñat Laskurain eta Unai Cordoba eibartarrek azaldu dute zein den plataformaren gaur egungo erronka nagusia eta nola ari diren komunitatea sendotzen, Eibarren zein herriz herri.

Duela hamabi urte sortu zen Gure Esku Dago plataforma. Ordutik ehundaka mobilizazio eta dinamika antolatu ditu, baina, plataformaz ezer ez dakienari, nola azalduko zenioke zer den Gure Esku Dago?

BEÑAT: Gure Esku Dago herri ekimen bat da, herri plataforma bat, pentsaera anitzeko jendea helburu komun baten inguruan biltzen duena. Helburu hori da Euskal Herria zazpi lurraldez osatutako herri bat dela, hizkuntza eta kultura propioak dituela eta bere etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea daukala. Horren inguruan egituratzen da plataforma.

UNAI: Horrela da. Hamabi urteotan ekimen ugari egin ditugu —masiboak eta txikiagoak—, baita ariketa

praktiko bat ere: libre eta demokratikoki bozkatzeko ekimena. Kataluniatik zetorren olatu hura Euskal Herrira egokitu zen, eta hala gauzatu zen Eibarren. Eta ez zen sinbolikoa: parte-hartzea zen neurtu nahi zena, herri ekimen bat nola bultzatzeko zitekeen ikusteko. Epe laburrean etorkizunean egin nahiko genukeenaren ariketa praktikoa izan zen. Hori da Gure Esku Dagoren filosofia hasieratik.

Gaur egun zein puntutan kokatzen da GED?

UNAI: Gaur egun inflexio puntu batean gaude. Estatutik euskararen zein euskal herritartasunaren aurka-ko jarrearen aurrean, Gure Eskuk aurrera begira jarri nahi du begirada. Kontuan hartu behar dugu Euskal Herria gaur egun hiru administrazioetan banatuta dagoela, eta errealtate sozialak ere ezberdinak direla. Horregatik, oraingo fasea ekimen praktiko handien gainetik, komunitatea sendotzera bideratu dugu.

Zein egoeratan dago plataforma herri mailan?

UNAI: Gorabeherak izan ditu, baina beti mantendu da enbor bat. Gure kideak eta eskualdeko plataformak sortu zutenak lanean jarraitu dute. Hamabi urteotan ekimen zehatzak egin ditugu: Euskal Jaietan talo postua, Tripontzia nazio mailan... Azken urte eta erdian, ordea, berriro piztu dela argi dago.

BEÑAT: Egia da giza katearen garaian dinamika



Beñat laskurain eta Unai Cordoba, Eibarko Gure Esku Dago-ko kideak. IRATI ALVAREZ

oso potentzia sortu zela. Pandemiak, ordea, ekimena moteldu zuen. Orain berriro martxa hartzen ari gara, berpizte fase batean.

UNAI: Eibarren zortzi edo bederatzi lagun biltzen gara astean behin, “denboratxoetan”. Orain Sanandresak pasata, atsedeen txiki bat hartuko dugu, baina data garrantzitsuak baditugu: abenduaren 27ko Kontseiluaren ekitaldia, Durangoko Azoka... Urtea gogor dator eta prest gaude.

Sanandresak aipatuta, komunitatea eraikitzeke lan horretan, jai batzordearekin kantupoteoa antolatu zenuten.

BENĀT: Bai, zapatu goizean egin genuen kantupoteoa. Helburua zen herriko elkarte eta eragile desberdinen arteko saretzea sustatzea. Kantua elementu garrantzitsua da herri eraikuntzan: Euskal Herria herri kantaria izan da beti, eta kultur transmisioan paper handia du. Iruditzen zitzaigun kantupoteo batek elkarte askoren parte hartzea ahalbidetuko zuela: koruak, kultur taldeak, musikaren inguruan dabilen jendea... Eta, bide batez, herri nortasuna eta erabakitzeke eskubidearen aldarria kalera ateratzeko parada zen. Jaixak Herriak Herriandakoren egitarauaren barruan txertatu genuen, elkargune naturala zelako.

UNAI: Helburua argia da: komunitatea sendotu eta

“Herritik eta auzoetatik eraikitzen da Euskal Herria. Gazteei ere dinamikan parte hartzeko ateak zabaltzeko nahi dizkiegu”

zabaltzea. GED ez da egitura zurruna; dinamikoa da, eta herriaren eta testuinguruaren arabera egokitu behar du. Eibar oso anitza da, eta aniztasun horretan ahalik eta herritar gehienek parte hartzea nahi dugu. Etorkizunean ekimen demokratiko bat gauzatu nahi badugu, lehenik gizartea landu behar da; eta gizartea pertsonak gara. Herritik eta auzoetatik eraikitzen da Euskal Herria. Gazteei ere dinamikan parte hartzeko ateak zabaltzeko nahi dizkiegu. Baina saretzea eta trinkotzea ez dira egun bateko lanak: denbora eta dedikazioa behar dute.

Komunitatea sendotzea da zuen helburua, beraz.

UNAI: Komunitatea sendotzea eta zabaltzea, bai. Gure ustez, GED ez da gauza trinkotua, dinamikoa



“Gure Esku Dago herri ekimen bat da, herri plataforma bat, pentsaera anitzeko jendea helburu komun baten inguruan biltzen duena”

BIDEOA
HEMEN IKUSGAI



izan behar da. Egokitu behar da bai kontextura bai herrira. Herri hau oso zabala da, eta ez bere luzeeran bakarrik (barreak). Handia da bai, baina gizarte modura oso anitza da. Aniztasun horretan beharrezkoa da ahalik eta jende gehienak parte hartzea horrelako ekimen demokratiko batean. Gauzatu nahi baldin badugu etorkizun batean horrelako ekimen demokratiko bat, landu beharrekoa da lehenengo gizartea. Gizartea dira pertsonak. Pertsonak dira Eibar. Eta hortik... Euskal Herria. Baina bereziki gure herri, auzo eta batzordeetan konplizitateak sortuz. Jai batzordeari dagokionez, gazteak dinamika honetan sartzea nahi izan dugu. Baina hori, saretzea eta trinkotzea ez da egun batetik bestera lortzen den zerbait, lanketa eta denbora ere eskatzen du.

Nazio mailan herritu txartela aurkeztu duzue. Zertan datza txartela?

BEÑAT: Herritu ekimena da, euskal komunitatea sendotzeko sortua. Gure ustez bada premia bat: Euskal Herritar izatearen sentimendua trinkotzeko beharra. Horri erantzuteko, Gure Eskuk hiru euskarri fisiko aurkeztu ditu: txartel bat —Euskal Herritar zarella eta erabakitze eskubidearen alde zaudela adierazten duena—, pegatina bat eta pin bat. Ikur horien bidez komunitate sentimendua indartu nahi dugu.

UNAI: Ez da agiri ofizial bat, ikur bat baizik. «Euskal Herria hemen dago, eta euskaldunok hemen gaude» esateko modu bat. Arlo desberdinetako jendea batu dezake: euskalgintzatik, arlo sozialetik, sindikaletik... Helburua da esatea hemen erabaki nahi dugula, gure hizkuntzan eta gure baldintzetan. Dinamika honek adar asko ditu; ez da papertxo soil bat. Etorkizunera begira, ikustarazi nahi dugu komunitate bat badagoela eta indartzen ari dela.



**Zure publizitatea
herriko aldizkarian**

688 621 535

publizitatea@etakitto.eus



LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORRA ETXERAK
NATURAL ETXERAK
LEHOKERAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

Enkarguak egin



ROSE AGUIRRE GALVEZ • Kazetaritza eta politika komunikatzailea

Eskubideei buruz hitz egin dezagun

Irrigarria dirudi 2025ean pertsonen eskubideak baliarazteaz hitz egiten jarraitzea. Eta ez, ez gara pribilegioez ari, ezta metafora batez ere. Iritzi publikoa manipulatzeko erabiltzen diren erdi egien eta albiste faltsuen hazkunderaz baizik. Hor hasten da egiarekin komunikatzeko funtsezko rola.

Duela egun batzuk leize-zuloetako ultra eskuinak berriro egin zuen: errealitate paralelo bat sortzeko diskurtso landuen erabilera. Beste era batera esanda, EGIA-OSTEA tresna politiko gisa erabiltzea ezagutzen ez duen horren beldur izatearen eta euren eskubideak defendatuko dituztela esaten dietenei sinestearen artean zalantzan dauden herritarrek konbentzitzeko.. Gizakiak ez bailiran aski haien jabe izateko.

Askatasunak eta eskubideak mehatxatzen dituzte ematen duten urrats bakoitzean, ez diezaiegun laga gehiago aurrera egiten. Esaten dutena moztu egin behar da, altxa dezagun ahotsa eta esan dezagun indartsu eta argi: “Lortutako eskubideak errespetatu egin behar dira”, hainbeste aldarrikatzen duten askatasunak guztiontzat izan behar du. Paperak eutsi egiten dio dokumentu ofizialetan gorderik, errealitatea praktikak eta ekintzak erakusten duen bitartean.

“Bil’bo/du’ etarrak” zioen Ayusok egun argiz Madrilgo erdigunean, ukiezina zelakoan. Erresistitzen duen herri oso bat irainduz, mamu munstroa erabiliz Euskal Herria estigmatizatzen jarraitzeko.

Politikaz hitz egitea, beharrezkoa ez ezik, betebeharra ere bada. Politika egunero egiten dugu, esnatzen garenetik oheratzen garen arte, inor ez da arrotz. Kontzienteki edo inkontzienteki erabakitzen dugu historiako zein lekutan egon nahi dugun, begiak estali eta “bakterrean” gelditu ala justizia soziala eta aukera berdintasuna duen mundu bat eraiki.

Jar dezagun gorputza, hitz egin dezagun politikaz, bete dezagun kalea, eman dezagun iritzia, irakur dezagun, iker dezagun, izaki kritikoak haz ditzagun, egin diezaiegun aurre eta bizi gaitezen osoki, lortutakoa ahaztu gabe eta argiak izan gaitezen: gure eskubideak ez dira kendu behar.

“Askatasunak eta eskubideak mehatxatzen dituzte ematen duten urrats bakoitzean, ez diezaiegun laga gehiago aurrera egiten”



Durangoko Azoka, inoiz baino nobedade gehiagorekin

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Bihar hasiko da Durangoko Azoka eta domekara arte edukiko ditu ateak irekita Landako gunearak. Kopuruei dagokienez, inoizko daturik baikorrenak izango ditu azokak, 285 erakusmahai, 1.026 nobedade eta 273 kultur ekitaldiko programa eskainiko direlako bertan. Aurten, gainera, bi atal berri izango ditu: podcastei lotutako Berbategia eta arte ederrei buruzko Atartea.

Informazio gehiago azokaren webgunean:



Euskal kulturaren jaialdia izan nahi du, beste urte batez, Durangoko Azokak. Abenduaren 5etik 8ra ekintzaz beteko da Durango (ez bakarrik Landako gunea) eta alde zaureratik emandako datu positiboak (inoizko azokarik oparoena izango da) borobildu nahi izango dituzte bertan biziko den giroarekin.

Aurten 60 urte beteko dira lehen Durangoko Azoka egin zenetik eta, Gerediaga elkartetik diotenez, azoka heldutasunera iritsi da. Horregatik, urtero lelo berriak asmatzearen sasoia atzean laga eta 'Kulturaren jaialdia' leloari jarraituko diote hemendik aurrera. Irudian ere bada nobedaderik, ez duelako irudi bakarra izango, irudi "infinituak" baizik, Iratxe Reparaz artistaren eskutik.

Guneetako eskaintza

Datu praktikoei begira, azoka 10:30etik 20:00etara egongo da zabalik, azken egunean ezik, 18:00etan itxiko delako. Azokaren muina Landako gunean aurkituko dugu, bertan egongo baitira 285 erakusmahaiak eta aurkeztuko diren nobedadeak. Tartean, Su Ta Gar musika talde eibartarrak eta Eibarren egoitza duen Badihardugu euskara elkarteak postua jarriko dute. Eta horrez gain, Talaia (gogoetaren gunea) eta Puntu Morea ere Landakon jarriko dituzte.

Landakotik kanpo, hainbat gune aurkituko ditugu: Kabia (teknologia digitalen plaza, Irazabal parkean), Ahotsenea literatura (literaturaren plaza, Montevideo etorbidean), Saguganbara (haurren plaza, Elkartegian), Irudienea (ikus-entzunezkoen plaza), Szenatokia (arte eszenikoen plaza, San Agustín kultur gunean), Ahotsenea musika (musikaren plaza,

Plateruenan) eta Eskuahaldunak (eskultoreen plaza, Ermodo kalean). Gainera, aurtan beste bi gune berri egongo dira: Atarte (arte ederren plaza, Durangoko museoan) eta Berbagailua (podcasten plaza, Madalenako ermitan).

Ahotseneak 18 urte beteko ditu aurtan eta 34 kontzertu eta 49 liburu aurkezpen hartuko ditu. Irudienean 35 ikus-entzunezko lan eskainiko dira, besteak beste, 'Jone, batzuetan' filma, Akelarre musika taldearen ibilbidea islatzen duen 'Akelarre: marearen kontra' lana eta 'Irabazi arte' telesailaren hurrengo denboraldiaren aurrestreinaldia. Szenatokia guneak antzerki maratoi formatuan antolatu du bere eskaintza eta, egunero, hiru konpainiak bina emanaldi egingo dituzte gutxienez, guztira 24 izango direlarik. Kabia guneak espazio propioa izango du aurtan eta tailerrak, egitasmoen aurkezpenak, 'gamer gela' eta rol partidak eskainiko dira bertan, besteak beste. Saguanbarak umeentzako 25 ekitaldi inguru hartuko ditu, hala nola ipuin kontalariak, musika saioak, tailerrak eta mahai jokoak. Eta Talaian nobedadeen aurkezpenak egingo dira.

Baita gauean ere

Azokaren jardun gehiena eguneko orduetan biltzen da, baina gauean ere egingo dituzte hainbat ekintza. Horrela, Ahotsenean, Szenatokian eta Talaian egingo dituzte gaueko saioak.

Gaur, abenduak 5, Lukiek eta Ezezez taldeek kontzertua emango dute, 23:30ean, Plateruenan. Bihar, toki eta ordu berean, Mirua eta Naxker taldeen kontzertua egongo da. Aurretik, 21:30ean, Behe Banda poeta kolektiboak 'Zeri idatziko diogu orduan?' saioa eskainiko du Ahotsenea literatura gunean. Eta etzi, 20:00etan, 'Heriotza Eduardo du izena' emanaldia taularatuko dute Szenatokian; 20:30ean, Paul Urkijoren 'Gaua' filma emango dute Irudienean; eta 21:00etan, Bittor Kapanga kultur gilea gogoratzeko ikuskizuna eskainiko dute Xabier Amurizak, Gontzal Mendibilek eta Joseba Sarrionandiak Talaia gunean.

Durangoko Azokatik garraio publikoa erabiltzeko deia egin dute eta, Eibartik joan eta gaueko eskaintzaz gozatu nahi izanez gero, Euskotrenek zerbitzu berezia eskainiko du abenduaren 5ean, 6an eta 7an, Matiko/Bilbo eta Eibar artean (E1 linean).



285 erakusmahai, 1.026 nobedade eta 273 kultur ekitaldiko programa eskainiko dira aurtengo Durangoko Azokan



1965. urtean egin zen Durangoko Azoka lehenengo aldiz.
DURANGOKO AZOKA

EKHI, NEREA eta MANEX • IKAMA ikasle mugimenduko kideak

“Hezkuntza sistema propio eta eraginkorra behar da euskarak etorkizuna izan dezan”

Euskararen erabilera etenik gabe jaisten ari dela diote adituek, eta transmisioari lotutako kezkak inoiz baino handiagoak dira. Eibarko IKAMako ikasleek argi dute: egungo hezkuntza ereduak ez du bermatzen gazteen euskalduntzea. Hori salatzeo eta aldarrikatzeko, abenduaren 11rako greba nazionala deitu dute, “Gure hezkuntza euskalduna” lemapean.

Testua **IRATI ALVAREZ**

Euskalgintzaren Kontseiluak adierazi du euskararen aurkako oldarraldia bizi dela, eta orain indarraldira jauzia egiteko garaia dela. Horretan bere ekarpena egin nahi du Ikamak. Ikasle ikuspegitik eta hezkuntzatik, jada hainbat plataforma eta eragilerekin batera sortzen ari den “olatuaren” parte izan nahi dute. Helburua: euskararen kontzientzia piztea eta lehen leerroan izatea. Ekhi Azpilikueta, Nerea Bergaretxe eta Manex Cordoba Eibarko Ikamako kideekin elkartu gara, dinamikaren parte den greba nazionalaz hitz egiteko.

Eibarko Ikama ikasle antolakundeko kideak kezkaz mintzo dira euskararen egoeraz. “Azken urteetan euskararen erabilerak behera egin du. Jendeak ez daki euskara ondo erabiltzen eta gazteok are eta gutxiago”, azaltzen du Ekhi. Euskararen ezagutza-maila ere “ez dela behar bezain duina” nabarmendu du.

"Gaztelera indarra ari da hartzen. Ez gara konturatzen, baina gure artean gero eta gehiago erabiltzen dugu"

Nerea ere iritzi berekoa da: “Gaztelera indarra ari da hartzen. Ez gara konturatzen, baina gure artean gero eta gehiago erabiltzen dugu; eta horrek eragin zuzena du euskararen etorkizunean. Ikasle bezala, uste dugu eskoletan euskararen erabilera gehiago bultzatu beharko luketela. Klasean ikasleak gaztelera hitz egiterakoan irakasleak euskara bultzatzea, esaterako. Gure artean euskaraz hitz egitera ohitzen bagara aurrerantzean ere horrela egiten jarraituko dugu”.

Manex Cordobak ohartarazi du gaztelera “modan” dagoela eta eus-

karaz hitz egiten duten gazteak albo batera gelditzen direla: “Horrek gure hizkuntza ohiturak eraldatzen ditu, gaztelera jotzera garamatza”.

D eredua, baina gaztelera nagusi
Ikasleak D ereduan matrikulatuta badaude ere, eguneroko ohiturek bestelako errealitatea erakusten dute. “Klaseak euskaraz dira, baina patioan, pasiloetan eta geletan gure artean gaztelera entzuten da ia beti”, dio Manexek. Arazoa ez da ikasleen artean bakarrik: “Irakasleen kasuan denetarik dago, baina irakasle eta ikasleen arteko elkarriketetan batzuetan gaztelera ere entzuten da. Hor dago arazoa: berez euskaraz izan beharko zena gaztelera hitz egiten dela. Euskaraz egiteko aukera galdu egiten da”.

"Euskaraz hitz egitera behartzea?"
Euskararen erabilera sustatzen denean, askok salatzen dute ikasleak “behartu” egiten direla euskaraz



Argazkian, Nerea Bergaretxe, Ekhi Azpilikueta (goian), eta Manex Cordoba (behean). IRATIALVAREZ

hitz egitera. Ekhi Azpilikuetak euskararen kontrako jarreraren zergatia azaldu du: “Askok euskara hezkuntzarekin bakarrik lotzen dute, eta ikastetxea gustuko ez dutenez, euskararekiko jarrera negatiboa izaten dute. Kontra egiteko jotzen dute gaztelerara”.

Nerearen ustez, horrek ondorio argiak ditu: “Hautzaroan euskaraz aritu denak ere, heldu ahala, gaztelerara jotzen du. Euskara-maila jaitxi egin da, eskolan gero eta eskakizun altuagoa eskatzen diguten bitartean. Kontrastea izugarria da. Irakasleei gazteleraz hitz egitea ohikoa bihurtu da. Ikusten da euskarak ez duela prestigio nahikorik gure adin-tartean”.

Sare sozialak eta diskurtso politikoak Ekhi azpimarratu du azken urteetako joera soziopolitikoak ere ez dela

"Euskalgintzan sortzen ari den olatu berriaren parte izan nahi dugu. Gazteok ezin gara alboan gelditu"

lagungarria: “Sare sozialetan normalizatu egin da hizkuntza txikien aurkako diskurtso eskuindarrak zabaltzea. Gainera, gazteek gazteleraz hitz egiten duten erreferenteak soilik ikusten dituzte, eta hortik askok ez dute euskaraz egiteko ohiturarik sortzen”.

Baina ardura ezin da gazteengan soilik jarri: “Instituzioek eta hezkuntza-sistemak ere badute eran-

tzukizuna. Ez badago euskararen erabilera sistemikoki babesteko egiturarik, ohiturak ezin dira modu naturalean aldatu” gehitu du Ekhi.

Greba eta mobilizazioa: indarraldia sortzeko beharra

Abenduaren 11ko grebak inflexio-puntua izan nahi du. “Euskalgintzan sortzen ari den olatu berriaren parte izan nahi dugu. Gazteok ezin gara alboan gelditu”, azaldu du Manexek.

IKAMAKo ikasleen mezua argia da: gazte zein heldu euskararen alde egitera animatu nahi dituzte, hizkuntza eta identitatearen parte delako. Ekhi Azpilikuetak nabarmendu du: “Denok gara euskarak eta gure kulturak aurrera egiteko arduradun”. Esandakoak kontuan izanik, abenduaren 11n Donostian egingo den mobilizaziora batzeko deia luzatu diete ikasle eta gazteei.



Harrera beroa egin zieten eibartarrek XXXI. San Andres Bertso Jaialdian aritu ziren bertsolariei

...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik, Alaia Martin, Eneritz Artetxe, Joanes Illarregi, Sustrai Colina eta Unai Iturriaga bertsolariek jardun zuten barixaku iluntzean Coliseo-ko oholza gainean, Mikel Arrillaga-gai-jartzaileak jarri zizkien lanak ondo baino hobeto betetzen. Illarregi nafarrarentzat, gainera, entrenamendu bikaina izan zen barixakukoa, hurrengo egunean Nafarroako Txapelketako finala baitzuen jokoan. Bigarren gelditu zen, Xabat Illarregi nebaren atzetik. Ohikoa den bezala, jaialdia hasi au-

rretik aurtengo San Andres Bertso Paper lehiaketako irabazleei sariak banatu zizkien Ekaitz Juaristi euskara elkarte-ko presidentek, eta lau saridunek bertso irabazleak kantatu zituzten jendearen aurrean. 16 urtetik gorakoan artean Hernaniko Iñigo Legorburu izan da aurtien irabazlea (300 euro eta txapela) eta bigarrena Aimar Goenaga eibartarra (250 euro eta plaka). Gazte-txoen artean Juan Antonio Mogel ikastolako bi ikaslek bereganatu dituzte sariak, Luke Litagok lehena eta Peru Gorosabelek bigarrena.



Txapa eta kandela tailerretan izen-ematea zabalik dago

Datorren astean ikastaro bi antolatuko ditu ...eta kitto! Euskara Elkartek Illunabarrian programaren barruan. Batetik, abenduaren 9an, martitzena, txapa-tailerra egingo da Arima Cool Tour-en eskutik eta, bestetik, abenduaren 11n, eguna, kandela-tailerra emango du Alluitz Naturak. Tailer biek ordu eta erdiko iraupena izango dute, 18:30etik 20:00etara izango dira eta parte hartu ahal izateko 8 urtetik gora izan behar da (haurrek heldu batekin hartu beharko dute parte). Plaza mugatuak dira baina oraindik bada lekuri. Izena telefonoz (943200918), emailaz (elkartea@etakitto.eus) edo web orrian (www.etakitto.eus) eman daiteke.



Kalean da azaroko Txikitto! hilabetekaria

Aste honetan jaso dute eskoletan Txikitto! hilabetekariaren azaroko alea Lehen Hezkuntzako ikasle guztiek. Oraingoan, Amaña ikastetxeko ikasleek igeriketa ikastaroan ikasitakoa azaldu digute eta Aldatzeko ikasle bat eta haren aitxixxa elkartu ditugu solasaldi dibertigarrian. Ale honetan ere ez dira falta ohiko txiste, ipuin, denborapasa eta bitxikeriak.

Euskararen Eguna iruditan



Herriko kaleak festaz jantzi dira, Gabonei ongietorria emateko prest



Aurreko asteko eguenean Errebal Plazan ospatu zen ekitaldian ixotu zituzten Gabonetako argiak. Eibarko Koro Gazteak eta Sofia Machin eibartarrak abestu eta gero, txokolatea eta opariak banatu zituzten haurren artean. Eibarko Udalak kaleak apaintzeko argiztapenerako 100.000 euro inguru bideratu ditu aurtan. Horrekin batera, Gabonetako programaren barruan, haurrei eta gazteei zuzendutako jarduerak ere antolatuta ditu.

Testua eta bideoa **SILBIA HERNANDEZ**

BIDEOA
HEMEN IKUSGAI



Gabonetarako programaren baitan, besteak beste, *Kirola Familian* jolasteko gunea eskainiko dute Ipurua kiroldegian abendu-ko asteburuetan (7, 13, 14, 20, 21, 27 eta 28an), 17:30etik 19:30era, “2-5 urte arteko neska-mutikoei jolasteko tokia izateko”.

Aisialdirako zerbitzu hau ume txikiak dauzkaten familia guztiek erabili dezakete, udal-kiroldegiko bazkide izan gabe ere. Udaletik adierazi dutenez, “asteburuak familia-giroan igarotzeko aukera polita eta segurua eskaintzen du zerbitzuak”.

Zerbitzua Ipurua kiroldegiko gimnasioan emango da, zapatuetan eta domeketan, otsailera bitartean, baina familiei dei egin diete, zerbitzua eman ahal izateko boluntarioak behar direlako: “Boluntariorik ez badago, espazioa itxita egongo da”, ohartarazi dute. Zerbitzua erabili ahal izateko pauso hauek jarraitu behar dira: “Atezaintzan karpeta urdina eskatu,

estatistika-orrian bertaratutako ume kopurua jaso (izenik gabe), araudia betetzen dela ziurtatu, jatea edo baloi handiekin aritzea saihestu, eta txikiak squash kanp-txetatik kanpo daudela ziurtatu. Horrez gain, zentzuz jokatu behar da sortzen den edozein egoeraren aurrean. Karpeta urdinean lana errazteko xehetasunak eta gomen-dioak daude”, azaldu dute.

Indianokua Gaztelekuan, berriz, sukaldaritza eta eskulan ikastaroak eskainiko dira, abenduaren 20an eta 21ean. Robotikarekin eta bideo-jokoekin lotutako jarduerak ere egingo dira (Microsoft *MakeCode Arcade*), adin eta txanda desberdinetan.

Astelena Gabonetako Parkea eta txirrista erraldoia Untzagan

Eta, oporrak hastearekin batera, Astelena Gabonetako Haur Parkea martxan jarriko dute, 2-12 urte bitarteko haurrentzat. Aurreko urteetan bezala, sarrerak 3 euro balioko du (doakoa, Eibarko



merkatariek banatuko dituzten bonua aurkeztuz gero), eta gehie-
nez ordu eta erdi egon ahalko da
bertan, jarraian.

Eta, iaz izandako arrakasta iku-
sita, aurten ere txirrista handi bat
jarriko dute Untzaga plazan, “hau-
rrek zein helduek gozatzeko”. Aste-
lena Haur Parkean bezala, 3 euro
ordaindu beharko dira edo, bestela,
bonua aurkeztu.

Urtero legez, Olentzerori gutuna
idazten dioten haurrentzat buzoia
ipiniko dute Pegoran eta Portalean,
abenduarien 15etik 23ra. Urteroko
kantu-kalejira, berriz, abenduaren
24an egingo da, 11:30ean Urkizu-
tik abiatuta.

Udalaren Gabonetako egita-
rauak, gainera, Coliseok hartuko
dituen hainbat musika eta antzer-
ki ikuskizun biltzen ditu: Eibar-
ko Udal Musika Eskolaren ohiko
kontzertuak (abenduarien 17an eta
18an), Sofia Machin eibartarraren



Gabonak amaitu arte egunero piztuko dituzte kaleak apaintzeko ipini dituzten argiak, eta Udalak 100.000 euro inguru bideratu ditu argiztapenerako. SILBIA HERNANDEZ

**Urtero bezala,
Gabonetako aisialdia
betetzeko moduko
eskaintza zabala
prestatu du Udalak,
era guztietako
jarduerekin.**

emanaldia (abenduarien 26an) eta
Hika antzerki konpainiak taula-
ratuko duen *Atearen bestaldean*
haurrei zuzendutako antzezlan-
a (abenduarien 29an), besteak beste.

Programa Errege Magoen ka-
balgatarekin amaituko da, urta-
rrilaren 5ean. Aurreratu dutenez,
egun horretan Ipurua kiroldegian
egingo den dantza-ikuskizunerako
gonbidapenak abenduaren 18an
banatuko dituzte.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

DUX Logroño - EIBAR (etzi, 16:00)

EIBAR - At. Madril (14an, 12:00)

Gizonezkoen 2. Maila

EIBAR - C. Leonesa (etzi, 18:30)

Cordoba - EIBAR (13an, 14:00)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

Real Sociedad B - EIBAR B (bihar, 12:00)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

Basconia - EIBAR B (bihar, 16:30)

Emakumezkoen 3. Maila RFEF

Mariño R. Union - EIBAR C (bihar, 12:30)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

San Ignacio A - EIBAR C (bihar, 12:45)

Erregionaleko Ohorezko Maila (gi)

URKI - Beti Gazte (bihar, 12:00)

Jubenilen Ohorezko Maila (gi)

EIBAR - Antiguoko (bihar, 12:00)

Jubenilen Nazional Liga (gi)

EIBAR B - Tolosa (bihar, 16:00)

Jubenilen Euskal Liga (gi)

URKI - Danok Bat C (bihar, 15:30)

ESKUBALOIA

Zilarrezko Maila (em)

Ermuko E. - E. ESKUBALOIA (bihar, 20:00)

1. Maila Nazionala (gi)

Beti-Onak - E. ESKUBALOIA (bihar, 12:15)

SASKIBALOIA

Gipuzkoako 2. Maila (em)

EIBAR SASKI. - Bera Bera (13an, 16:00)

WATERPOLOA

2. Maila Nazionala

URBAT - Concepcion (13an, 20:15)

ERRUGBIA

Ohorezko B Maila

U. Bilbao - EIBAR RT (13an, 16:00)

Albiste gehiago



Eibar Igerixaneko benjaminek eta alebinek ligako txapelketa hasi dute

Eibar Igerixan taldeko benjaminek joan den zapatuan hasi zuten liga. Oñatiko Zubikoa kiroldegian jokatu zuten lehen jardunaldia eta hainbat izan ziren Eibartik joandako igerilariak.

Hain zuzen ere, hauek osatzen dute benjaminen taldea: Mohammed Mokadden (2015), Ariane Valenciaga (2015), Aiora Vega (2015), Oihan Riaño (2016), Leo Gutierrez (2015), Izaro Limia (2017), Emily Indigo Cordoba (2016), Aimar Osoro (2015), Adrien Rivas (2016), Manex Barandiaran (2016), Nagore Agüero de la Cruz (2016), Ledjom Bardhoshi (2016), Ander Iturbe (2016), Eva Ferreira (2017), Unzetabarrenetxea (2016), Malen Rey (2017), Eljon Ahmeti (2016), Luka del Rio (2015), Noa Amesti (2015), Julen Arrillaga (2016), Eneko Galarra (2015), Gari Trifol (2016), Nora Azkarate (2015), Xuhare Go-

jenola (2016), Carmen Echaluze (2015) eta Hodei Trifol (2016).

Alebinek, bere aldetik, ligako bigarren jardunaldia jokatu zuten Azkoitiko kiroldegian. Eibar Igerixaneko Alazne Avellaneda (2014), Ane Plazaola (2013), Maria Rodriguez (2013), Lirie Bardhoshi (2014), Alkida Ahmetaj (2014), Gorka Castrillo (2013), Xabat Limia (2013), Unax Conde (2013) eta Ilyas Zaid El Khayat (2013) egon ziren bertan, eta podiumera igo ziren horietako batzuk.

Adibidez, Xabat Limia lehena izan zen 50m tximeletan, Alazne Avellaneda bigarren proba berean, Unax Conde eta Alkida Ahmetaj hirugarren proba horretan ere. Gorka Castrillo, bere aldetik, hirugarren izan zen 200m bizkarrean. "Denek lan handia egin dute euren markak hobetuz", diote Eibar Igerixanekoek.

GREMIOEN GIDA

ANTENAK

Ego Gairn, 2 - Bac
Tfnua: 943 12 73 50
www.trinmer.com



**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

ELEKTRIZITATEA

THELECEER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BEHARRITAGARRIAK
24 orduko
urgentziak
610 532 922 www.theleceer.com

KRISTALAK

ACHA Kristaldogia
J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com eta faxa:
943 203 983

AROTZAK



ulmar
s.l.
metalak eta
materialak

aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA
baita toloak, gortinak, estoreak etabar

Txontea, 38 - 1. eta behea
Tfnua: 943 12 13 67 www.ulmar.net

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformatz
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobear
goza dezazun

Aziltain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnua: 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK

IÑAKI
pinturak eta lurrak

Tel. 647 902 208
Bidebarrieta, 21 - behea

GARBIKETAK



Garbihome

Etxe, atari, bulego, merkataritza lokal eta
komunitateetarako garbiketa perbitzuak
erakuntzen dirugu

642 456 472
info@garbihome.com
garbihome.com



Beste garaipen bat lortuta, lasai da orain CD Urki

E.B. CD Urki-ren Ohorezko Erregionaleko taldeak 0-2 irabazi zion joan den asteburuan Mutrikuri Kemenen eta Martxelen golei esker, eta hiru puntuak lortuta, sailkapenaren 9. postuan kokatu da, 16 punturekin. Asteburu honetan Beti Gazte (6. postuan dago 18 punturekin) hartuko du Unben eta, irabaziz gero, goiko postuetara begira jartzeko aukera izango luke, beheko postuak atzean lagata.



Deporreko mendizaleek azken bazkaria egingo dute Santa Marinan

E.B. Herri Txikiak arloko irteera egingo dute Klub Deportiboko mendizaleek abenduaren 13an, eta azken bazkaria egingo dute bertan. Ezkion hasiko dute mendi-ibilbidea eta, Murumendi igo ondoren, Santa Marinan amaituko dute, Albizturren. Informazio gehiagorako eta izena emateko: mendia@deporeibar.com eta 943 20 19 04.



Urbat-waterpolo taldeko neskek bikain jarraitzen dute

E.B. Urbat Urkotronik-eko emakumezkoen senior taldeak CW Lautada izan zuen arerio eta 13-7 gailendu zitzaion. Gizonezkoen senior talde nagusiak, bestalde, garaipenik lortu ezinda jarraitzen du. Tenerife Echeyde B hartu zuen Donostiako Paco Yoldi kiroldegian eta aurpegia eman arren, amore eman zuen azkenean (9-13).

Gizonezkoen kadeteetako taldearentzat, bestalde, asteburu borobila izan zen. Barixakuan, 17-1 irabazi zion Urganari eta, zapatuan, 5-21 Donostiako Easwin-i.



Bolunburu Oroigarria krosa zirkuitu berriarekin dator aurtan

E.B. Bolunburu Oroigarria krosaren 74. edizioa jokatu da abenduaren 14an, Arraten, eta ibilbide berria izango du aurtan, 1970eko hamarkadako ibilbidea berreskuratuz. "Atleten zein ikusleen hurbiltasuna eta erosotasuna hobetzea espero da, Arrateko zelaia izango baita krosaren gune nagusia", Eibarko Klub Deportiboko berbetan.



Deporreko atletak txukun aritu ziren Unben jokaturako Gipuzkoako Udazkeneko PLP-an

E.B. Joan den zapatuan, Gipuzkoako Udazkeneko Partaidetza Libreko Probaren bigarren saioa (PLP 2) egin zen Unben. Guztira, bederatzi klubetako 55 atletek hartu zuten parte eta tartean izan ziren Eibarko Klub Deportiboko bost: Maialen Cenarruzbaieitia (luzera, pisua eta jabalina), Naia Astigarraga (luzera eta jabalina), Kepa Marquez (luzera eta jabalina), Haizea Magunazelaia (jabalina) eta Martina Egaña (pisu jaurtiketa).

Giro hotz eta eguzkitsuan, atleta eibartarrek “maila bikaina” eskaini zuten, Deporrekoeen berbetan. Horrela, Maialen Cenarruzabeitiak eta Martina Egañak euren markarik onenak lortu zituzten luzera jauzian (4,88) eta pisuan (8,02); eta, “ohi bezala”, maila onean aritu ziren Kepa Marquez eta Haizea Magunazelaia. Naia Astigarragak, bestalde, debuta egin zuen jabalinaran eta luzera jauzian federatu mailan, “emaitza onak” lortuz.

Marta Lopez de Gereñu SD Eibar-en lehen taldera

E.B. Denboraldi honetan SD Eibar-en lehen taldeak 12 aldiz deitu ondoren, taldeko jokalaririk bihurtu da Marta Lopez de Gereñu. Hegaleko jokalaririk eibartarrik bigarren taldeko kide moduan hasi zuen denboraldia eta lehen taldearekin sei partidur jokatu ditu orain arte, azkena FC Bartzelonaren aurka.

Lopez de Gereñu lehen taldeko kidea izan zen 20/21 denboraldian, 17 urte zituela, eta hurrengo denboraldian, 21/22an, bigarren taldearekin eduki zuen fitxa. 2022an Granadara joan zen lagata eta 23/24an Racing Feminas taldera. Joan den denboraldian, 24/25ean, SD Eibar-en bigarren taldearekin egin zuen fitxa, baina hainbatetan deitu zuten lehen taldearekin.



Kirola Familian ekimena martxan da

E.B. Joan den zapatuan eman zitzaion hasiera Kirola Familia ekimenari. Horren bitartez, 2 eta 5 urte arteko haurrek aukera izango dute doako espazio seguru batez gozatzeko Ipurua kiroldegian. Gainera, udal-kiroldegiko bazkide izan gabe ere parte har daiteke. “Asteburuak familia-giroan igarotzeko aukera polita eta segurua eskaintzen du zerbitzuak”, esan dute Udaletik.

Zerbitzua Ipuruako gimnasioan emango da, zapatuetan eta dome-

ketan, 17:30etik 19:30era, otsailera bitartean. Egun hauetan egongo da irekita: abenduaren 7, 13-14, 20-21 eta 27-28an; urtarrilaren 3-4, 10-11, 17-18, 25 eta 31n; eta, otsaileko asteburu guztietan. “Zerbitzua eskaini ahal izateko familia boluntarioak behar dira; horrela izan ezean, espazioa itxita egongo da”, abisatu dute.

Zerbitzua erabili ahal izateko, atezaintzan karpeta urdina hartu eta eskatutakoa bete behar da.





Akuarela-tailerra antolatu du Kultuk abenduaren 10erako

S.H. Barixakuaz geroztik *Iraganeko eta gaurko Eibar* erakusketa bisitatu daiteke Topalekun, Arrate Kultur Elkartearen erakusketa aretoan. Eibarko Artisten Elkarteko bazkideen margolanak, marrazkiak, maketak eta beste lan batzuk bildu dituzte erakusketa honetan, “antzinako Eibar, gaur egungoa eta etorkizuneko irudikatze”. Abenduaren 14ra arte egongo da ikusgai.

Bestetik, abenduaren 10erako (eguztana) akuarela-tailerra antolatu du Arrate Kultur Elkartek, Francisco Perez Guenagarekin. Saioa 18:00etan hasiko da eta, izena emateko, elkartearen bulegora joan daiteke edo, bestela, telefonoz deitu (638 284 912) edo mezua idatzi (arratekultu@gmail.com).



The Bo Derek's taldea arituko da abenduako Musika Klubean

S.H. The Bo Derek's taldearen kontzertuarekin agurtuko dira Musika Klubaren emanaldiak, datorren urtera arte. Abenduaren 14an (domeka) joko dute, 19:00etatik aurrera Coliseon. Zuzenekoetan The Sonics, Bo Diddley, Flamin' Groovies edo Link Wray bezalako talde handien bertsioak eskaintzen ditu talde honek, baita kantu instrumental eta bokalak ere. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Gabonetako argazki lehiaketa antolatu du Udalak

S.H. Eibarko Udalak *Eibarko zure txoko gogokoena Gabonetan* lehiaketa abiatu du, eta Gabonetako giroa irudikatzen duten herriko tokien argazkiak Instagram eta Facebook sare sozialetan partekatzea gonbidatu ditu herritarrek. Herriko edozein txoko esanguratsu erretratatu daiteke. Parte hartzeko, ezinbestekoa izango da argazkia #GABONAKEIBARREN25 traolarekin argitaratzea, Udalaren kontu ofiziala (@eibarkoudala) aipatzea, eta Instagramen edo Facebooken profil publiko batetik egitea. Erabiltzaile bakoitzak argazki bakarrarekin lehiatu ahal izango du, edozein gailurekin, eta nahi duen estiloan. Azalpen labur bat gehitu ahal izango da, txoko hori zergatik aukeratu duten esateko. Gabonak igarota, urtarrilaren 7an, jasotako irudi guztien artean zozketa egingo du Udalak, eta irabazleak 500 eurotik gorako balioa duen lotea (Coliseoaren Laguna txartel bi eta Erosi Eibarren txartelak) jasoko ditu. Lehiaketaren oinarriak www.eibar.eus/webgunean kontsultatu daitezke. Bestelako azalpenak eskatzeko lehiaketa@eibar.eus helbidera idatzi daiteke.

Liburu aurkezpena familientzat

S.H. Eguztenean (abenduak 10) aurkeztuko du Ane Gastesi Larrañagak *Anton dentistarenean*, berak idatzi duen ipuina Portalean (areto nagusian). Egilea 20 urte baino gehiagoko esperientzia duen odontologoa da, eta aurkeztuko duen liburu horretan aho-hortzetako osasunarekiko duen maitasuna eta idazketa konbinatzen ditu, familiak eta haurrak inspiratzeko.





Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa hasiko da eguaztenean Coliseon

S.H. Cimasub Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Jaialdiaren 49. edizioa hartu du Donostiak azaroan eta, urtero bezala, 25/26 *Cimasub Tourra* abiatu dute orain, 30 herri baino gehiagotan, “itsaspeko munduaren magia ahalik eta jende gehienarekin partekatzen jarraitzeko”. Eibarko Klub Deportiboaren Urpekaritza batzordearen eskutik, abenduaren 10etik 12ra egingo da Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloaren 24. edizioa Eibarren. *Egia zure begien aurrean* izenburuari jarraituko dio zikloak: “Cimasub-ek publikoa informatu, sentsibilizatu eta hunkitu nahi du, eta gure itsasoan edertasun ezkutua ez ezik, mehatxuek eragiten dituzten errealitate gogorak ere erakutsi”, diote antolatzaileek.

Itsaspeko zinemari buruzko hiru saio desberdin eskainiko dira Coliseon abenduaren 10ean, 11n eta 12an, 19:00etatik 21:00etara. Nazioarteko jaialdiko 15 film labor eta bost dokumentalik onenak proiektatuko dituzte, eta sarrera doan da. Horrez gain, Cimasub-era aurkeztutako argazki onenekin erakusketa ikusi daiteke Coliseon (goiko pisan), abenduaren 12ra arte.

Txikizikloa eta Adinzikloa

Urteroko martxan, *Txikiziklo* izenekoaren bi saio berezi eskainiko dituzte. Lehena ikastetxeei zuzenduta egingo da, abenduaren 10ean. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleentzat hainbat film labor proiektatuko dituzte, eta urpekarri profesionalek hitzaldia emango diete. Eta bigarrena abenduaren 13an egingo da, 12:00etan Coliseon, eta bereziki familientzat pentsatuta dago. Programa osatzeko, *Itsaspeko Adinzikloa* antolatu dute, Egogain gerontologia-zentrokoentzat: “Urpeko zinemas gozatzeko aukera paregabea izango dute, euren ingurunetik irten gabe”, diote.



“Loreen hizkuntza” komedia taularatuko dute gaur Coliseon

S.H. La Mapatxa Teatroa konpainia berria Coliseon izango da gaur, abenduak 5. 19:00etatik aurrera igoko da oholtzara Ibon Belandiak konposatu eta interpretatutako “Loreen hizkuntza” zuzeneko musika duen komedia aurkeztera. Lan honetan ahozko tradizioko abesti herrikoiak berreskuratu dituzte, musika elektroniko bihurtuta, eta izendatzaile komun batekin: loreen erabilera konkista estrategia gisa (lausenguak). Proiektu honekin ekin dio bideari euskal antzerki-konpainia berri honek. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Klub Deportiboko argazkilarien erakusketa

S.H. Atzo zabaldu zuten Klub Deportiboko argazkilarietako urteroko erakusketa kolektiboa, Portalean. Azaldu dutenez, “oraingoan egile bakoitzak hiru argazki jarri ditu ikusgai, eta bakoitzaren begiradan errealitatea ikusteko estilo eta modu bakarria antzeman ahal izango dugu”. Aurten gaia aukeratzeko askatasun osoa eman zaie. Urtarrilaren 11ra arte joan daiteke ikustera.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	2				8		
		9	4		6	3	
				9			7
2				1	7		
	6	7				1	2
			5	8			4
9				5			
	7	1			4	2	
		4				8	

SUDOKUA


1	8	3	6	2	7	4	5	9
5	6	2	4	9	8	1	3	7
9	7	4	1	5	3	2	8	6
4	9	7	2	8	5	3	6	1
8	2	1	3	7	6	5	9	4
3	5	6	7	1	9	8	4	2
4	3	6	5	2	7	9	8	1
7	1	5	8	6	1	2	4	3
2	3	8	5	9	7	4	6	1

1	2	3	4	8	7	9	5	6
6	5	9	1	3	5	7	8	2
8	4	5	2	6	9	3	7	1
3	8	6	1	4	2	7	9	5
9	4	6	3	7	2	8	1	5
4	9	8	6	5	9	6	2	3
7	1	2	7	1	2	7	6	8
5	6	5	9	5	6	3	4	1
2	3	4	1	2	7	6	8	5

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

				4		1		2
	2	1	9		6			
3			1		7	6		
			8			2	1	
5								6
	7	2			9			
		3	6		2			8
			5		1	4	6	
9		6		8				

Labirintoa



Abenduak 5 / Abenduak 18

BARIXAKUA 5

ANTZERKIA

19:00 "Loreen hizkuntza" (La Mapatxa Teatroa). 10 euro. Coliseo.

ZAPATUA 6-DOMEKA 7

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gunetik. Ipuruia kiroldegia.

MARTITZENA 9

TERTULIA

10:30 Berriketari ikasi: ¿Han perditu credibilidad las ONGs?. Antolatzailea: Ikasten. Sarrera librea. Portalea.

ILLUNABARRIAN

18:30/20:00 Txapa tailerra, Arima Cool Tourren eskutik. ...eta kitto!

LITERATURA

19:00 Idazlearekin Haria Emoten: Iker Aranberri Sarasua, "Baden verboten" liburuari buruz. Portalea.

KANTU SAIOA

19:00 Kantu saio irekia euskal kantak ikasteko (Adi! Egun-aldaketa dago). Arrate Kultur Elkartea.

EGUAZTENA 10

EIBARKO CIMASUB

10:00 Itsaspeko Txikizikloa (ikastetxeentzat). 19:00 Itsaspeko Zinema. Coliseo.

AKUARELA TAILERRA

18:00 Akwarela tailerra, Francisco Perez Guenagaren eskutik. Arrate Kultur Elkartea.

LIBURU AURKEZPENA

18:00 Ane Gastesi Larrañagak "Anton dentistarenean" ipuina aurkeztuko du. Sarrera librea. Portalea.

EGUENA 11

HITZALDIA

10:00/12:00 "Palestina hoy: Entre la ocupación y la resistencia civil, Gaza y Cisjordania ante el desafío de la paz y la dignidad humana". Antolatzailea: Ikasten. Sarrera librea. Portalea.

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emateentzat. Untzaga jubilatutik. etxea.

LIBURU AURKEZPENA

18:00 "Euskal Herriko Greba Feministak. Diskurtsoaren analisisa feminismo materialistatik". Hizlaria: Uma Ulazia Zubeldia. Andretxea.

ILLUNABARRIAN

18:30/20:00 "Kandela tailerra, Alluitz Naturaren eskutik. ...eta kitto!

EIBARKO CIMASUB

19:00 Itsaspeko Zinema. Doan. Coliseo.

BARIXAKUA 12

ZINE-FORUMA

18:30 Zine-forum feminista saioa, Pagatxa emakume elkartearen eskutik. Sarrera librea. Portalea.

ZAPATUA 13

SUKALDARITZA TAILERRA

10:00/13:00 Gabonetarako sukaldaritza tailerra, Basaguneak antolatuta. Portalea (sukaldea).

GABONETAKO AZOKA

10:00/14:00 Gabonetako Bigarren Eskuko Azoka. 11:30/14:00 "Egin Gabonetako apaingarriak material birziklatuekin". Doan. Errebal Plazia.

EIBARKO CIMASUB

12:00 Itsaspeko Txikizikloa (familiarentzat). Coliseo. 19:00 Itsaspeko Zinema. Doan. Coliseo.

BISITA GIDATUA

17:00 Doako bisita gidatua, Museoaren erakusketatik iraunkorrera. Euskaraz (gaztelaraz 18:30ean). Armagintzaren Museoa.

DOMEKA 14

ZUHAITZ-LANDAKETA

09:30 Landaketa, Eibarko Basoak Bizirik-en eskutik. Unbetik abiatuta.

BISITA GIDATUA

11:00/14:00 Gerra Zibileko gerra-frontearen ibilbide historikoa. Euskaraz. Arrate (Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa hasita).

MUSIKA

12:30 Eibarko Musika Bandaren Gabonetako kontzertua. Doan. Coliseo.

MUSIKA KLUBA

19:00 The Bo Derek's. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelaren deskontuarekin). Coliseo.

MARTITZENA 16

BIDEO-FORUMA

17:00 Emakumeen Istoriak: Maria Lejarraga. Dinamizatzailea: Patricia Perex Coto. Pagatxa emakume elkartearen eskutik. Doan. Andretxea.

EGUAZTENA 17

AGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiazko borondatei buruzko informazio-zerbitzua, Ikasten-en eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

EGUENA 18

HITZALDIA

10:00/12:00 "Algo mas que un plato digno de comida". Antolatzailea: Ikasten. Sarrera librea. Portalea.

ERAKUSKETAK

Abenduaren 7ra arte

"Eibarko txirrindularitza". Untzaga gizarte zentroa.

Abenduaren 12ra arte

"CIMASUB Donostiako Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloa" argazki erakusketa. Coliseo.

Abenduaren 14ra arte

"Eibar lehen eta orain", Eibarko Artisten Elkartearen erakusketa. Topaleku.

Abenduaren 5etik

urtarrilaren 11ra

Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen lanak. Portalea.

Abenduaren 12tik

urtarrilaren 11ra

"Gau beilako eleak", Jon Ibalaren pintura erakusketa. Portalea.

Abenduaren 13tik 28ra

"Premiazko aniztasuna. Asakatasunean katerik ez" Ibon Rokandio eta Murtxe Martinen argazki erakusketa. Untzaga gizarte zentroa. Otsailaren 1era arte "Errobera artean". Eibarko Armagintzaren Museoa.

ZINEA COLISEO



"Singular"
INTRIGA.DRAMA.
2025/Espainia/100'
Zuzendaria: Alberto Gastesi
Aktoreak: Patricia López Arnaiz,
Javier Rey, Miguel Iriarte
**Drama psikologikoa/
Adimen artifiziala.**

1 ARETOA
• **6an:** 19:45, 22:30
• **7an:** 20:00
• **8an:** 19:30



"Nuremberg"
THRILLER.DRAMA.
2025/AEB/148'
Zuzendaria: James Vanderbilt
Aktoreak: Russell Crowe, Rami
Malek, Michael Shannon,
Richard E. Grant
Drama judiziala/Abokatuak.

1 ARETOA
• **6an:** 16:30
• **7an:** 16:30

2 ARETOA
• **6an:** 22:30

ANTZOKIA
• **6an:** 19:30
• **7an:** 20:00
• **8an:** 19:30



"Dracula"
BELDURRA. ERROMANTZEA.
2025/Frantzia/129'
Zuzendaria: Luc Besson
Aktoreak: Caleb Landry Jones,
Zoë Bleu Sidel, Christoph Waltz,
Matilda DeAngelis
Banpiroak. XV. mendea

2 ARETOA
• **6an:** 17:00, 19:45
• **7an:** 17:00, 20:00
• **8an:** 19:30

ANTZOKIA
• **6an:** 22:30



"Tigre galdua"
ANIMAZIOA. ABENTURAK.
2024/Australia/90'
Zuzendaria: Chantelle Murray
Aktoreak: Rhys Darby, Celeste
Barber, Thomas Weatherall
Animaliak.

ANTZOKIA
• **6an:** 17:00
• **7an:** 17:00

"No estás loca"
DOKUMENTALA.
2025/Espainia/85'
Zuzendaria: María
Bestar
Aktoreak: Luis Tosar,
• **9an:** 19:00



Josean Alonso Gonzalez

3. URTEURRENA
2022/12/05

Hutsune handia utzi diguzu, eta egunero faltan botatzen zaitugu. Baina, aldi berean, maitasunez gogoratzen dugu eman diguzun guztia. Josean, gure bihotzetan biziko zara beti.



- ETXEKOAK -



Maria Elcoro-Iribe Osa

3. URTEURRENA
2022/12/01

Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko, gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.

Askio maite zaitugu.



Abenduaren 7an, domeka, eguerdiko 12:00etan bere aldeko meza eskainiko da Karmengo Amaren Parrokian.

- ETXEKOAK -

943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **MIKEL**, gure txapelduna! Abenduaren 4an 9 urtetxo, mutil haundi! Askok maite zaitugu. Famelixaren partez.



Zorionak **NAHIA**! Abenduaren 4an 7 urte bete dittuzu eta. Jarraitu gure bizitzak alaitzen. Besarkada eta musu haundi bat zaitugu!



Zorionak **JULE**! 5 urte bete dittuzu eta. Jarraitu gure bizitzak alaitzen. Besarkada eta musu haundi bat famelixan partez.



Zorionak **JON**! Domekan 7 urte betetzen dozuz. Jarraitu beti bezain alai eta jator. Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak **BIHOTZ**! Domekan 9 urte egingo dozuz eta. Merienda goxoa prestatu. Askok maite zaitugu, batez be Ametsek eta Hodeik.



Zorionak **MARKEL**! Abenduaren 2an 7 urte bete zenduazelako Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak **UNAX** eta **AIUR**! Unaxek 8 urte eta Aiurrek urtetxo bat. Eskerrik asko gure bizitzako argia izatiagatik. Musu haundi bat aitatz eta amatxon partez.



Zorionak **LUCIA**! 14 urte bete zenduaz martitzenian. Musu potolo bat danon partez. Paulak, aitak, amak eta amamak asko maite zaitugu.



Zorionak **PEIO**! Abenduaren 6an ospatzeko arrazoiak ematen jarraitzen dozu ta musu erraldoiak zure 8. urteurren



Zorionak **AIA**, prexios! Hurrengo domekan 2 urte beteko dozuzelako. Patxo potoluak etxeko guztien partez.

Antonio
Alberdi Atxa

7. URTEURRENA
2018/12/08



"Ez ditugu inoiz
ahaztuko izan dituzun
ilusioa eta bizipoza"

- ETXEOAK -



Enrique
Añibarro Zubizarreta

5. URTEURRENA
2020/12/04

"Beti izango
zaitugu gogoan"

- ETXEOAK -



Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskeraek
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
Pisua salgai, guztiz hornitua erdigunean. Txaltxa Zelai inguruan. 631579498.

4. LANA
4.1. Lan bila
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. 613287661.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna, externa edo orduka. 632768653.
Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxean edo ospitalean. Baita pintura eta gidari-lanak egiteko ere. 641844485. Robinson.
Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko edo partikularrak emateko. Magister-tza ikasketak. 648625209.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako edota ostalaritzan sukalde laguntzaile bezala. 602051567.
Gizonezkaria eskaintzen da tabernetan lan egiteko, nagusiak zaintzeko edo lorazain moduan aritzeko. 643160133.
Mutila eskaintzen da asteburuetan tabernetan lan egiteko. 682213356. Iker.
Garbiketa lana edo nagusien zaintza egiteko prest nago. Arratsaldetan. 620757528. Arrate.
Neska eskaintzen da kamarrera edo harreragile moduan lan egiteko. Esperientziarekin. Gabonetako, udako edo Aste Santuko oporretan. 611433467.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako, interna bezala edota ostalaritzan sukalde la-

guntzaile bezala. 747495356.
Emakume erizaina eskaintzen da zainketa lanak egiteko, orduka edo jardunaldi osoa. 641834341.
Gizona eskaintzen da pintura, elektrizitate, igeltseritza eta zurgintza lanak egiteko. 641838914.

4.2. Langile bila
Elgoibarko enpresa batek biltegian eta banaketan lan egiteko pertsona bat behar du. Gidabaimena ezinbestekoa da. Bidali curriculum: hornikuntza@gmail.com
Interna behar da gurpil-aulkian dagoen adineko bat zaintzeko. 626206564.
Estetizista behar da Eibarko ileapaindegi batean lan egiteko. Lan-giro paregabea. 943208125.
Sukaldaria behar da Eibarko taberna batean, barran zerbitzatzeko ezagutzarekin. Informazio gehiago Orbelatabernan. 660460295.
Depor tabernan kamareroa/zerbitzaria behar da barixaku-astelehena bitartean lan egiteko. 665726146.

5. IRAKASKUNTZA
5.2. Eskaintzak
Pintura klaseak ume edota helduentzat. Umeak; 4 ertatik aurrera, helduak; edozein adinetakoak. Informazio gehiago www.maitearriaga.com . 668 51 68 93
DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK
6.1. Salgai
Txakurrentzako edo katuentzako transportina salgai. 37 zm. zabalera/45 zm. altuera/61 zm. sakontasuna. Estreinatzeko. 20 euro. 688626914.
Gurpildun aulki elektrikoak salgai. 60 zm. zabalera 90 zm. sakonera. 1.800 €. 688847237 eta 656756470.

❖ GABON ZORIONTSUAK ❖



Gabonetan txartelek saria dute



Abenduaren 9tik 21era erosi zure opari-txartela eta
irabazi 250 €-ra arte!!

www.erosieibarren.eus



150 familia gertu duten okindegi baten bila dabilta.



Errekatxu Berri da zure
negozioaren giltza; zatoz.
Lokalak eta **garajeak** salgai,
estreinatzeko prest.



Informa zaitez
loiola.com
900 102 220

 **Loiola**
Espacios para vivir